# KOPYLEKU
## Fabriketako arkitektura eta paisaia

Gaur egungo gizakiaren erronketako bat ingurumenarekiko oreka da, lurraldeei eta pertsonei eragingo dien bizi-ereduaren aldaketa ekar dezakeena.

Fabrika-arkitektura etengabe desagertzearen ondorioz, industria-paisaia eraldatu dela egiaztatzeak orduko ekoizpen-mekanismo hura suntsitu izanaren eragina azpimarratzen du, eta agerian uzten du beharrezkoa dela eredu jasangarri berriak eta paisaien antolamendu ekologikoa bilatzea fabrika-espazio horiek berrerabiltzeko, jatorrizko tipologiaren arabera berrituta.

Ikonografia industriala gai garrantzitsua da, bai arte garaikidearen garapenean, bai nire ekoizpen artistikoan. Erakusketa honetarako hautatu ditudan lanak girotuta daude, besteak beste, Sestao, Barakaldo eta Trapagaran udalerrietan, eta nire erreferente ikonografikoa eta motibazio artistikoaren iturria osatzen dute.

Nabarmentzekoak dira, bereziki, fabrika-arkitekturei dagozkienak (Porland seriea, Galindo zementu-fabrika I), lanari eta soziabilitateari erreferentzia egiten dieten eraikuntza funtzionalei dagozkienak (Garbitoki Komunitarioa seriea), elementu mekanikoei eta tresnei dagozkienak (Artefacto-Makina seriea, Polaroid-Legado Minero- seriea), bai eta industria-paisaiari dagozkionak ere (Ezkerraldea seriea).

Testuinguru horretan, margolari eta grabatzaile gisa aurkezten ditudan lanetan proposamena egiten dut fabriketako arkitektura eta paisaia horiek toki, irudi eta euskarri (matrizea eta papera) gisa garatzeko, kopiaren kontzeptuaren bidez, eraikuntza eta espazio horiei aplikatutako aztarna eta metafora gisa.

Pieza esperimental horietan, bai grabatuetan, bai urratzaileak dituzten foto-xilografietan, bai kobrearen gaineko foto-akuaforteetan, argazkigintzaren zeharkakotasunaren kontzeptua garatu dut. Horren bidez, beraien ezaugarri bisualak direla-eta, lanek genero piktoriko fotorrealista bat gogora ekarri, eta grafikoarekin eta pintura hedatuarekin lotutako unitatea/erreproduzigarritasuna binomioa planteatzen dute. Horrela, pieza bakarrak ikus daitezke, zurezko eta metalezko euskarri grabatu gisa konformatuak, bai eta paperaren gaineko obra grafiko seriatu edo anizkoitzak ere.

Nire praktika artistikoan, lehenik eta behin argazkia erabiltzen dut espazio horien errealitate ezegonkorra eta hauskorra atzemateko, eta ondoren, errealitate hori zeharka praktikan jartzen dut hainbat euskarritan, antzekotasunak ezarriz desegindako leku horien eta nik aplikatutako sorkuntza-teknika eta -prozesuen artean, azken horietan ere presente baitaude materiaren suntsiketa, igarotako denbora eta aztarna.

Obra horien inpaktuari dagokionez, nabarmendu behar da esanahi propioa hartzen dutela, oro har; izan ere, industriako ingurumen-errealitate horren kopia subkontziente bihurtzen dira, eta, agian, desagertua den zerbait gogorarazten duen begirada batekin sortuak, baliagarriak izan daitezke galdutakoaren memoria berreskuratzeko, hondarren eta beraien ikonografiaren eta balio plastikoen inguruko aztarna artistiko gisa.

Fernando Mardones

**www.fernandomardones.com**

# KOPYLEKU
## Arquitectura y paisaje fabril

Uno de los retos a los que se enfrenta hoy el ser humano es el equilibrio medioambiental, lo que propicia un cambio de modelo vital que puede determinar nuestro futuro, afectando a los territorios y a las personas.

La constatación de la continua desaparición de la arquitectura fabril y, por consiguiente, la transformación del paisaje industrial subraya el efecto de la destrucción de aquel mecanismo productivo de entonces y, demuestra, la necesidad de buscar nuevos modelos sostenibles para la reutilización de estos espacios fabriles y el ordenamiento ecológico de los paisajes, devolviéndolos renovados conforme a su tipología original.

La iconografía industrial es un tema importante tanto, en el desarrollo del arte contemporáneo como en mi producción artística. Las obras que he seleccionado para esta exposición están ambientadas, en lugares localizados en los municipios de: Sestao, Barakaldo y Trapagaran, entre otros, conformando mi referente iconográfico y mi fuente de motivación artística.

Destaco, en especial, las referidas a las arquitecturas de fábricas (serie Porland, Cementera Galindo I), a las construcciones funcionales que aluden al trabajo y la sociabilidad (serie Lavadero Comunitario), a los elementos mecánicos y herramientas (serie Artefacto-Makina, serie Polaroid-Legado Minero-), así como, a las del paisaje industrial (serie Ezkerraldea).

En este contexto, presento como pintor y grabador, unas obras donde propongo desarrollar la idea de la arquitectura y el paisaje fabril como lugar, como imagen y como soporte (matriz y papel) a través del concepto de la copia, como huella y metáfora, aplicada a estas construcciones y espacios.

En estas piezas de carácter experimental, tanto en las grabadas como fotoxilografías con abrasivos, como en los fotoaguafuertes sobre cobre, he desarrollado el concepto de la transversalidad de lo fotográfico que, por sus características visuales aluden a una suerte de género pictórico fotorrealista, planteando en ellas, el binomio unidad / reproductibilidad vinculado con la gráfica y la pintura expandida. De este modo, se pueden ver piezas únicas, conformadas como soportes grabados de madera y de metal y, obra gráfica seriada o múltiple sobre papel.

En mi práctica artística, primero utilizo la fotografía para captar la inestable y quebradiza realidad de esos espacios, después, la pongo en práctica transversalmente sobre distintos soportes, estableciendo similitudes entre esos lugares desmantelados y, las técnicas y procesos creativos que he aplicado, donde también, están presentes: la destrucción de la materia, el tiempo transcurrido y la huella.

Respecto al impacto de estas obras, destacar que adquieren, en su conjunto, una significación propia, ya que se convierten en una copia subconsciente de esa realidad medioambiental industrial y, tal vez, puedan ser de utilidad para recuperar su memoria, a modo de vestigio artístico en torno a la ruina, a su iconografía y a sus valores plásticos, creados con una mirada evocadora de algo ausente.



Fernando Mardones

**www.fernandomardones.com**